# ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ORDAINTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

1. artikulua.- Helburua.
Araudi honen helburua da ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko diru-laguntzak arautzea. Diru-laguntza jasoko dute, ondorengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten bizikidetza-unitateen titularrek.

2. artikulua.- Diru-laguntza jasotzaile izateko baldintzak.
1. Ohiko etxebizitzagatik ordaindu behar den zergaz ari garelarik, etxebizitzaren subjektu pasibo gisa ageri direnek diru-laguntza jaso dezakete, baldin eta bizikidetza unitate bateko kide izanik, guztion artean dituzten diru-sarrerak taula honetan agertzen diren mugen barruan badaude.

| KIDE KOPURUA | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| **SBE laguntza jasotzen dutenak** | 8.669,92 | 5.566,54 | 4.105,08 | 3.078,81 | 2.463,05 |
| **Gutxieneko soldata *1 / kide kopurua** | 9.172,80 | 4.586,40 | 3.057,60 | 2.293,20 | 1.834,56 |
| **Gutxieneko soldata *2 / kide kopurua** | 18.345,60 | 9.172,80 | 6.115,20 | 4.586,40 | 3.669,12 |
| **Gutxieneko soldata *3,5 / kide kopurua** | 32.104,80 | 16.052,40 | 10.701,60 | 8.026,20 | 6.420,96 |

Jasoko den laguntzaren kopurua:

- 6.203,01 €tik behera %50
- 6203,01 €tik - 10.005 %30
- 10.005 €tik-15.007,50 %20

2. Taula hori aplikatzeko, hauek hartuko dira kontuan:

- Bizikidetza-unitatearen kide kopurua zehazteko, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9. artikulua.

*9. Artikulua - Bizikidetza-unitateak*

*1. Lege honen ondorioetarako, honako pertsona edo talde hauek izango dira bizikidetza-unitateak:*

*a) Etxebizitza edo bizitoki batean bakarrik bizi direnak; sailkapen horretatik kanpo geratuko dira, bakarrik bizi arren, ezkontzaren edo antzeko harreman iraunkor baten bidez beste bati lotuta daudenak, non eta ez dabiltzan banantzeko edo dibortziatzeko*

*izapideak egiten edo non eta ez den erregelamendu bidez zehaztuko den bestelako salbuespenezko egoerarik gertatzen.*

*b) Etxebizitza edo bizitoki berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, elkarren artean batuta daudenean ezkontzaren edo antzeko harreman iraunkor baten bidez, adopzioaren bidez, laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunaren edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasunaren bidez, edo familia-harrerako harreman iraunkor baten edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman baten bidez.*

*c) Egiaztatzeko moduko premia larriko egoeretan, b) idatz-zatian aurreikusitako lotura horietako edozeinen bidez lotuta ez dauden beste batzuekin etxebizitza edo bizitoki berean bizi diren pertsonetako bakoitza. Erregelamendu bidez zehaztuko dira halako egoerak.*

*2. Salbuespen gisa, are artikulu honetako 1.b paragrafoan aurreikusitako loturetakoren bat daukaten pertsonen helbidean integratzen direnean ere, bizikidetza-unitatetzat hartuko dira honako hauek:*

*a) Zahartzaro, baliaezintasun edo alarguntasuneko ordaindutakoaren araberakoak diren edo horren araberakoak ez diren pentsioen onuradunak, baita haien ezkontidea edo haiekin ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez batutako pertsona eta ekonomikoki haien mende dauden pertsonak ere.*

*b) Etxeko tratu txarren biktima izanda, beren ohiko helbidea utzi duten pertsonak, baita haien seme-alabak ere, horrelakorik izanez gero.*

*c) Beren kontura adingabeak dituzten pertsonak.*

*d) Beren ohiko etxebizitza utzi behar izan duten pertsona bakarrak, dela banantze edo dibortzio baten ondorioz edo nahiko baliabide ekonomikorik ez izateagatik, dela gizarte-zerbitzuek muturrekotzat jotako egoeraren batengatik.*

*Eusko Jaurlaritzak, gizartearen bilakaerari eta, bereziki, familia-egiturako ereduen bilakaerari erantzunez, beste salbuespen batzuk ere zehaztu ahalko ditu, aldi baterako harrerako formulak barne direla.*

*3. 2. paragrafoan aurreikusitako kasuetan, etxebizitzan edo bizitokian bizi diren gainerako pertsonak, are 1.b paragrafoan aurreikusitako loturetako baten bidez aipatutako pertsonekin harremana dutenak, beste bizikidetza-unitate bateko kidetzat joko dira.*

*4. Lege honen ondorioetarako, artikulu honetan aipatzen diren bizikidetza egiazkoa edo bizikidetza-eza aztergai izan beharko ditu administrazio eskudunak, kasuaren arabera beharrezkoa denean.*

Mendizaleen plaza, 1. 20690, Elgeta (Gipuzkoa)
943 76 80 22 elgeta@udal.gipuzkoa.net
www.elgeta.eus

- Ondorio beretarako, ekitaldiko urtarrilaren 1eko Biztanleen Udal Erroldan dagoen informazioa, eskatzailea erroldatuta dagoen etxebizitzari buruzkoa (ohiko etxebizitza). Errolda egin ondoren izandako aldaketak banan-banan aztertuko dira.
- Bizikidetza-unitateko kideetako inork edo kide guztiek batean ez dute jabetzan beste ondasun higiezinik izango, diru-laguntza jasoko duen etxebizitzaz gain (ez dira zenbatuko eskaera egin duten etxebizitzaren eraikin berean trastelekutarako dauden lokalak).
- Bizikidetza-unitateko kideetako inork edo guztiek batean ez dute Elgetako Udalarekin zorrik edo zehapenik izango exekuzio-aldian.
- Laguntzaren hartzaile izateko, ohiko etxebizitzak ezingo du 150.000€ baino balio katastral handiagoa izan.
- Ondasun Higiezinen gaineko Zergarentzat aurreikusita dauden hobariren bat disfrutatzen badu, ezingo du dirulaguntza hau jaso. (2018rako)?? Ojo GAZTELERAZ!!

3. artikulua.- Diru-laguntzak zehazteko irizpideak.

1. Ondasun Higiezinen Zergaren kuotaren gainean kalkulatuko da 2.1. artikuluko taula aplikatu ondoren ateratzen den portzentajea (kide kopuruaren arabera, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatari dagozkion sarrera guztiak kontuan hartuta).

Zenbateko osoak udaleko aurrekontuan izendatua dagoena gainditzen duenean, lehentasuna izango dute 2. artikuluko taularen arabera behar gehien dutela egiaztatzen duten eskatzaileek, hurrenez hurren behar gehienetik gutxienera banatuko direlarik laguntzak, aurrekontuan ezarritako partida agortu arte.

2. Kide guztien sarrerak agiri hauen bidez egiaztatuko dira:

- PFEZren aitorpena, edo hori aurkezteko betebeharra ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria. Diru-sarrerak PFEZen mende ez dauden pentsio edo prestaziotik badatoz, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- INEMen ziurtagiria, prestazio ekonomikorik jasotzen duen edo ez adierazten duena.
- Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, pentsiorik eta/edo prestaziorik jasotzen duen edo ez adierazten duena.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren ziurtagiria, kotizaziorik gabeko pentsioa jasotzen duela egiaztatzen duena; edo, hala badagokio, dirusarrerak bermatzeko errenta (oinarrizko errenta) jasotzen duela egiaztatzen duena.

4. artikulua.- Diru-laguntza eskaerak bideratzeko prozedura.

- Eskaera-orriak aurkezteko epea urtero-urtero jakinaraziko da ohiko publizitate- bideen bitartez –dokumentazioari jarri behar zaion erreferentzia-data ere zehaztuko da-. Ez da izango epea luzatzeko aukerarik, non eta epe horretan gaixorik edo ospitaleratuta egon dela behar bezala justifikatzen ez den. Oro har, martxoan izango da.
- Diru-laguntza eskatu nahi duten zergadunek eskaera-orria aurkeztu beharko dute horretarako izendatzen diren udal bulegoetan, diru-sarreren egiaztagiriekin batera (3.2. artikulua). Halaber, eskaeran jaso behar dute diru-laguntza dagokion ordainagiriaren ordainketari endosatzea nahi dutela.
- Agiriak aztertu eta egiaztatu egingo dira eta, entzunaldiaren izapidearen bitartez, aukera emango zaie interesdunei egoki deritzotena adierazteko, eta horren ondoren proposamena egingo da, 2.1. artikuluko taula aplikatuta ateratzen diren zenbatekoak ordain daitezen.
- Ekainaren lehenengo hamabostaldian ebazpena aurrez aurre jakinaraziko zaie interesdunei horretarako izendatzen diren udal bulegoetan, edo euren izenean agertzen direnei –behar bezala egiaztatu beharko dute ordezkaritza–. Horretarako epea bukatu eta oraindik bulegoetan agertu ez badira, jakinarazi zaiela joko dugu.
- Diru-laguntza zuzenean ordainagiriari aplikatuko zaio, eta ordainketaren egiaztagiria ohiko posta bidez bidaliko da.
- Zerga hau helbideratuta duen zergadunari ohiko datan kontutik zordunduko zaio gainerako zenbatekoa.
- Helbideratuta ez badu, borondatezko ordainketa-epearen hasieran ordainagiri osoaren abisua bidaltzen zaion helbidera bidaliko zaio, batetik, egindako ordainketaren egiaztagiria, eta, bestetik, beste abisu bat, ordaintzeko falta duena errazago ordain dezan.

**BASES REGULADORAS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA EL PAGO DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES**

<u>Artículo 1.- Objeto.</u>
Es objeto de la presente normativa regular la concesión de subvenciones para el pago del impuesto sobre bienes inmuebles a las personas titulares

| **NUMERO DE MIEMBROS** | **1** | **2** | **3** | **4** | **5** |
|---|---|---|---|---|---|
| **Perceptores del RGI** | 8.669,92 | 5.566,54 | 4.105,08 | 3.078,81 | 2.463,05 |
| **Salario mínimo *1 / número de mimbros** | 9.172,80 | 4.586,40 | 3.057,60 | 2.293,20 | 1.834,56 |
| **Salario mínimo *2 / número de miembros** | 18.345,60 | 9.172,80 | 6.115,20 | 4.586,40 | 3.669,12 |
| **Salario mínimo *3,5 / número de miembros** | 32.104,80 | 16.052,4 | 10.701,60 | 8.026,20 | 6.420,96 |

integrantes de las unidades de convivencia que cumplan las condiciones que se establecen en los siguientes artículos.

<u>Artículo 2.-</u> Requisitos para obtener la condición de persona beneficiaria.

1. Podrán adquirir la condición de beneficiarias las personas que figuren como sujeto pasivo del impuesto correspondiente a su vivienda habitual, que formen parte de una unidad de convivencia cuyos ingresos se encuentren dentro de los límites que se establecen en la siguiente tabla.

Importe de la ayuda a percibir:

- Por debajo de 6.203,01 € 50%
- Entre 6.203,01 € - 10.005 € 30%
- Entre 10.005 € -15.007,50 € 20%

2. A los efectos de aplicación de la tabla, se tomará en consideración:

- Para la determinación del número de miembros de la unidad de convivencia, el artículo 9 de la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.

*Artículo 9 – Unidad de convivencia*

***1.** A los efectos de la presente ley tendrán la consideración de unidad de convivencia las siguientes personas o grupos de personas:*

***a)** Personas que viven solas en una vivienda o alojamiento, quedando excluidas de dicha consideración las personas que, aun viviendo solas, estén unidas a otras por matrimonio u otra forma de relación permanente análoga a la conyugal, excepto cuando se encuentren en trámites de separación o divorcio o cuando concurran circunstancias excepcionales en los términos que se determinen reglamentariamente.*

***b)** Dos o más personas que viven juntas en una misma vivienda o alojamiento, cuando estén unidas entre sí por matrimonio u otra forma de relación permanente análoga a la conyugal, por adopción, por consanguinidad hasta el cuarto grado o afinidad hasta el segundo grado, o por una relación de acogimiento familiar permanente o preadoptivo o de tutela.*

*c) Cada una de las personas que vive con otras con las que no está unida por ninguno de los vínculos previstos en el apartado b) en una misma vivienda o alojamiento, debido a situaciones constatables de extrema necesidad en los términos que en dichas situaciones se determinen reglamentariamente.*

***2.-** Excepcionalmente, aun cuando se integren en el domicilio de personas con las que mantengan alguno de los vínculos previstos en el apartado 1.b de este artículo, tendrán la consideración de unidad de convivencia:*

***a)** Personas beneficiarias de pensiones contributivas o no contributivas de vejez, invalidez o viudedad, junto con su cónyuge o persona unida a ellas por relación permanente análoga a la conyugal y las personas que dependan económicamente de ellas.*

***b)** Personas que habiendo sido víctimas de maltrato doméstico, hayan abandonado su domicilio habitual, junto con sus hijos e hijas si los tuvieren.*

***c)** Personas con menores de edad a su cargo.*

***d)** Personas solas que se hayan visto forzadas a abandonar la vivienda en la que residían habitualmente a consecuencia de una separación o de un divorcio o por falta de recursos económicos suficientes, o por alguna situación que sea considerada como extrema por parte de los servicios sociales.*

*El Gobierno Vasco, atendiendo a la evolución social y, en particular, a la evolución de los modelos de estructura familiar, podrá definir nuevas excepciones, incluyendo fórmulas de acogimiento temporal.*

***3.-** En los casos previstos en el apartado 2, las demás personas residentes en la vivienda o alojamiento, aun las relacionadas con las personas referenciadas por alguno de los vínculos previstos en el apartado 1.b, serán consideradas como*

*pertenecientes a otra unidad de convivencia.*

***4.-*** *A los efectos de la presente ley, la convivencia efectiva o la no convivencia referidas en este artículo deberán ser objeto de investigación por parte de la administración competente, cuando el caso lo exija.*

- A los mismos efectos, la información obrante en el Padrón Municipal de Habitantes a 1 de enero del ejercicio en curso, referida a la vivienda en la que deberá constar empadronada la persona solicitante (vivienda habitual). Las variaciones producidas con posterioridad a la confección del censo, serán objeto de análisis individual.
- La totalidad de los miembros de la unidad de convivencia no deberá ser propietaria de otro bien inmueble distinto de aquel para el que se solicita la subvención (se excluye de este cómputo el local destinado a trastero que se encuentre ubicado en el mismo edificio de la vivienda objeto de la solicitud).
- La totalidad de los miembros de la unidad de convivencia no deberá tener con el Ayuntamiento de Elgeta ni deudas ni sanciones en período ejecutivo.
- Para ser considerada persona perceptora de la ayuda, la vivienda no podrá tener un valor catastral superior a 150.000 €.

<u>Artículo 3. Criterios para la determinación de las subvenciones.</u>

1. Sobre la cuota del Impuesto sobre Bienes Inmuebles se calculará el porcentaje que resulte de aplicar la tabla del artículo 2.1 (en función del número de miembros respecto de los ingresos totales referidos al Salario Mínimo Interprofesional).

Cuando el importe total exceda del consignado en el presupuesto municipal, tendrán preferencia las unidades familiares que en base a la tabla del artículo 2, acrediten una mayor necesidad, abonándose las ayudas de mayor a menor necesidad, hasta que se agote dicha partida presupuestaria.

2. La acreditación de los ingresos de todos los miembros deberá realizarse a través de:

- Declaración del IRPF o certificado acreditativo de no estar obligados a presentarla. Si los ingresos proceden de pensión y/o prestación no sujeta a IRPF, será preciso aportar el certificado correspondiente.
- Certificado del INEM de estar percibiendo o no alguna prestación económica.
- Certificado de la Seguridad Social de estar percibiendo o no algún tipo de pensión y/o prestación.

- Certificado de la Diputación Foral de Gipuzkoa acreditativo de la pensión no contributiva que se percibe o, en su caso, de la prestación de la renta de garantía de ingresos (renta básica).

Artículo 4. Procedimiento para la tramitación de las solicitudes de subvención.

- El plazo para la presentación de instancias se dará a conocer cada año por los medios de publicidad habituales –indicando la fecha de referencia de la documentación que ha de presentarse, sin posibilidad de prórroga, excepto para casos de enfermedad o internamiento en centro hospitalario durante dicho plazo y siempre que esta circunstancia se justifique debidamente. Con carácter general, tendrá lugar durante el mes de marzo.
- Aquellas personas que deseen solicitar la subvención, deberán presentar su instancia en las oficinas municipales que se señalen, acompañada de la documentación acreditativa de los ingresos (artículo 3.2), haciendo constar asimismo la solicitud de endoso de la subvención al pago del recibo correspondiente.
- Tras la comprobación y valoración de la documentación y una vez finalizado el trámite de audiencia en el que las personas interesadas podrán alegar lo que estimen oportuno, se hará propuesta de abono de los importes resultantes de la aplicación de la tabla del artículo 2.1.
- Durante la primera quincena de junio se notificará la resolución por comparecencia a las personas interesadas que, por sí o por medio de representante debidamente acreditado, se personen en las oficinas municipales que se indiquen. Transcurrido el plazo habilitado a tal efecto sin haberse presentado, se les tendrá por notificadas.
- El importe de la subvención se hará efectivo aplicándose directamente al recibo, y se remitirá por correo ordinario el justificante del abono así realizado.
- A quien tenga domiciliado el pago de este impuesto, en la fecha habitual se le hará un cargo en cuenta por el importe restante.
- Si no lo tiene domiciliado, a la misma dirección a la que se le envía el aviso por el recibo completo a principios del período voluntario de pago, le remitiremos tanto el justificante del abono realizado como un nuevo aviso para facilitarle el pago del importe restante.